

Dokumentu mota: Idatziz Erantzuteko Galderak

Nori zuzendua: Osasun Sailburuari

Izapidetze organoa: Diputazio Iraunkorreko Mahaia

Proposatzailea: Rebeka Ubera

Talde parlamentarioa: EH Bildu

Ekimenaren izenburua: Zumarragako Etenik Gabeko Arreta Gunearen itxierari buruzkoa.

## ZIOA

Martxoan, SARS-CoV-2 birusaren pandemiaren ondorioz, Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuetan hainbat berregituraketa eman ziren. Nabarmena izan zen Etenik Gabeko Arreta Guneetan emandako berregituraketa, birusaren aitzakipean. Nahiz eta, hein batean Covid-19aren zonifikazioak bere zentzua zuen, zirkuitu zikinak eta garbiak mantentzeko birusaren aurrean; egia da ere, ordu batetik aurrera hainbat gunetan zirkuitu biak elkartzen zirela eta beraz, agerian uzten zuela antolatutako zirkuituak. Bestetik, pandemiaren hasierarekin batera ohiko aktibitate guztia bertan behera geratu zen eta deseskaladarekin batera, ohiko aktibitateari heldu zitzaion berriro. Beraz, Osakidetzako zeregina areagotu da eta agerikoa da, oraindik ere denbora luze xamarrean SARS-CoV-2 birusarekin bizitzeko prestatu behar dugula Osakidetzan, aldi berean gainerako aktibitateari erantzuten dion bitartean.

Zentzu horretan, Etenik Gabeko Arreta Guneek jokatu duten papera funtsezkoa izango da, arreta komunitarioaren ikuspuntutik eta ospitaleetako larrialdiak ez saturatzeko. Ez du zentzurik, SARS-CoV-2 birusarekin bizi behar garen honetan, egoera epidemiologikoak okerrera egin duen honetan Etenik Gabeko Arreta Guneak itxirik mantentzea.

Horregatik, ez da ulertzen Goierri Urola Garaia ESIko Zumarragako EAG oraindik itxita mantentzea eta bertako biztanleak Beasainera joan behar izatea. Erabaki horren atzean osasun irizpideak baino gehiago, irizpide ekonomikoak daudela pentsarazten digu, edo eta urte luzeetako planifikazio eskas baten ondorioz, pertsonal gabezia. Baina, osasun arlotik kanpo egon daitezkeen irizpideak ezin dute baldintzatu pandemia baten erdian herritarrak jaso beharreko osasun arreta.

Hori dela eta, ezinbestekoa ikusi dugu zenbait argibide eskatzea.

### IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK

Osasun Sailburuari Idatziz Erantzuteko ondorengo Galderak aurkezten dizkiogu:

- Zergatik oraindik Osasun sailak ez du Zumarragako Etenik Gabeko Arreta Gunea ireki?
- Osasun sailak pentsatzen al du Zumarragako Etenik Gabeko Arreta Gunea itxia izateak laguntzen duela SARS-CoV-2 birusari aurre egiten? Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk dira arrazoiak? Erantzuna ezezkoa bada, zeintzuk dira arrazoiak?
- Osasun sailak Osakidetzarekin batera noiz dauka aurreikusita Zumarragako Etenik Gabeko Arreta Gunea irekitzea?
- Osasun sailak ez al du pentsatzen, Zumarragako Etenik Gabeko Arreta Gunea itxia izateak ospitaleko larrialdiak kaltetzen dituenik?

Euskal Herrian, 2020ko uztailak 15

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea

Rebeka Ubera Aranzeta

